



## EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatuko dugu datorren martxoaren 8an eta, NBEk proposatzen digun moduan, emakumeek lortutako aurrerapenei buruzko gogoeta egiteko unea izango da, euren komunitateen historian egindako ekarpenen ospakizuna egiteko unea ere izango delarik.

Hezkidetza batzordetik aldarrikapenerako diren egun jakin hauek eskolako komunitate osora helaraztea eta egun hauen ospakizunetan parte-hartze aktiboa izateko konpromezua hartu genuen. Horregatik, datorren asteazkenean, martxoaren 8an, gure eskola osatzen dugun partaideok Emakumeen Nazioarteko eguna ospatuko dugu.

Ikasturte honetan Berritzegunetik jaso dugun proposamena genero eta kulturartekotasunari buruzko hausnarketa egitea da. Agerian geratzen da kultura guztietan diskriminazio-eta desberdintasun egoerak daudela. Hori dela eta oso garrantzitsua da programazioko arlo guztietan kultura guztietako emakumeen ekarpenak sartzeta eta aniztasun kulturalak errekonozitzea. Debatea kultura eta emakumeen elkartasunean kokatu behar dugu eta ez kultura batzuk beste batzuk baino berdintasunezkoagoak diren ala ez.

Horrela, aurtengo leloa: **HAMAIKA KULTURA ESKUBIDE BERBERA** izango da.

Proposamenak:

HH: Superlola bideoa ikusi  
Kapa moreak egin

LH1 eta 2: Superlola bideoa ikusi  
LH1 Bideoaren lanketa  
LH2 Solasaldia: “NESKAK ETA MUTILAK DESBERDINAK DIRA? ...ALA BERDINAK?” (horma-irudia)

LH3 eta 4: bideoa. superlola:

<https://youtu.be/LVAfqiVM9qw>

Ariketa: nolakoak dira neskak? Nolakoak dira mutilak?  
(BRAINSTORMING)

LH5 eta 6: Bideoa: “Rap de Sura”

[https://youtu.be/Wo3Wal8\\_7y0](https://youtu.be/Wo3Wal8_7y0)

Ariketa: Neska izatearen onurak  
Mutila izatearen onurak

ESKOLAKO EKINTZA OROKORRA: Eskolako sarrera nagusian esku erraldoi bat jarriko dugu eta koloretako tenperak. Ikasle eta irakasleak eskuak kolorez busti eta esku erraldoia kolorez beteko dugu. Argazkiak aterako ditugu blogerako. Aurtengo leloa: “hamaika kultura, eskubide berbera” jarriko dugu bertan.

IRAKASLEAK: Bideoa ikusi: <https://youtu.be/263Fz3W8fQM>  
Kafe tertulia eskusiba orduan

GURASOAK: Genero estereotipoak gainditzen dituen argazkiak eskolara bidali.

Ekintza guzti hauen eta martxoak 8ko egunaren ospakizuna nola joan den balorazio txiki bat ere egitea eskatuko dizuegu. Horretarako txantilo bat prestatu dugu.

Aldez aurretik, eskerrik asko guztioi eta denon artean martxoak 8 egunero bihurtu dezagun!!!!

Hezkidetza Batzordea